



JARDUERA PROPOSAMEN MULTZOA

1. SARRERA

Jarduera hauen bitartez aurtengo Nafarroa Oineza ezagutzea lortu nahi dugu: leloa, logoa, abestia... Era berean, Euskaren erabilera sustatzea eta indartzea dugu helburu.

Jarduera hauek irekiak eta malguak izatea nahi dugu. Dokumentu hau bizia eta irekia izatea, hain zuzen ere.

Helburu nagusia gure komunitatean Nafarroa Oineza lantzea da, eta horretarako jarduera mota desberdinak aurkezten dizkizugu.

Zuk zeuk askatasun osoz jarduerak aldatu, aberastu, luzatu edo berriak txertatu ditzakezu.

Jarduerak aurrera eramaten dituzun heinean, komunitatean konpartitzea eskatzen dizugu.

Hau da, ekarpenak, ekoizpenak, argazkiak, bideoak, balorazioak,... jasotzea eta partekatzea nahiko genuke, elkarlanez egindako lan xume hau denon artean aberastuz eta osatuz.

Lanketa egiten den bitartean, Nafarroa Oineza girotzeko eta iragartzeko bideotxo laburrak sortzea eta argazkiak egitea ere proposatzen dizuegu sare sozialetan argitaratzeko.

Denon artean gure Ikastolak antolatzen duen jaiari azken bultzada eman behar diogu eta horretarako gure txoritxoak eta arraina, gure ikasleak hain zuzen ere, protagonista izan behar direla uste dugu. Ondorioz, ikasleen presentzia bermatu beharrean gaude.

Horretarako, aukera desberdinak baliatu ditzakezu; *ikasleak eta txoriak/arraina, ikasleak eta logoa, unitate honetan zehar proposatutako jardueraren batean jasotako irudiak, photo call-a, gelan sortutako koreografiak,...*

Kontuan hartuta Nafarroa Oineza Urriaren 16 eta 17an ospatuko dugula, aurreko hiru asteetan jarduerak lantzea egokia izango litzateke. Horretarako egunero denbora eskaintzea eskatzen dizugu. Zure esku gelditzen da.

Zure inplikazioa, ilusioa eta gogoia behar dugu!

Mila esker!!!

2. IRUDIA eta LELOA.

50 urteetan pausorik pauso bidea egin dugu, Lizarran euskaraz bai, bizi eta hazi gara, eta orain abiadura hartu eta hurrengo 50 urteetarako hegan egin nahi dugu. Ega inguruan hegan, baina beti ere oinez. Errealitatearekin bat, oinak lurrean sendo, mugarik gabe, hegan eginez!

Nola egin nahi dugu bide hau? Txorien antzera... Oskola hautsi, hasieran oinez ikasi, eta indarrak hartutakoan, **hegan**. Egan, etorkizunera hegan. Hodei guztien azpitik, sasi guztien gainetik lau haizetara euskara zabaltzen.

Txoriak gure ikur, baina Ega bizkar-hezur.

Tantaz-tanta sortzen de ur emaria, ibai bilakatuz, eta bertan gure bizimodua errotuz, arraina gure lagun. Denak ez baikara berdinak eta elkarrekin soilik lortuko baitugu aurrera begira euskararen portu ziurra bilakatzea gure herria.

Urte berezia zena, bi urte arraro bilakatu zaigu. Bide baten aitortza zena, gauzak ulertzeko eta egiteko modu berri batean bilakatzeko garaia egokitu eta orain 50 urte beldur gabe jokatu genuen bezala, gaur ausart ongi etorri esan nahi diogu etorkizunari.

Ongi etorri, erronka berri honetan bidea elkarrekin egin nahi duen orori.

Ikastola da gure ardatza, bere handitasun zein ezintasunean, bidean aurrera egiten. Gure txikiei erakutsiz, elkarrekin, ezina ekinez egiten dela.

Non, **Nafarroan**. Gure ama hizkuntza, “lingua navarrorun” gutxietsi eta zapaldu den munduko txoko txiki honetan. **Lizarran**, euskaldunon historian horrenbeste orrialde idatzi dituen hirian.

Eta nola ez: **Euskara**, uskara, euskera, eskuara... esateko modu ezberdin, bihotzean ulertzeko modu bakarra. Maitasunez. Baina maitasuna politagoa da norbaitekin konpartitzen badugu. **Zu, ni, elkarrekin**.

Eraiki dezagun etorkizuna. Egin dezagun, oinez, igeri edo hegan, egin dezagun elkarrekin **hegan oinez**.

Ongi etorri

Ikastola

Nafarroa


Euskara

Zu, ni, elkarrekin.

3. PROPOSAMENAK

JARDUEREN ZERRENDA	
JARDUERA	IZENA
1	"HEGAN OINEZ" IRUDIA eta LELOA
2	HEGAN OINEZ LELOA eta ERAKUSKETA
3	Ipuinaren alde zurrekoak: PERTSONAIK EZAGUTU
4	IPUIN KONTAKETA
5	Ipuina irakurri ondoren: ELKARRIZKETA eta SORMENA
6	PERTSONAIK AZTERTU eta KOLOREZTATU
7	PERTSONAIA BERRIAK ASMATU ETA AURKEZTU
8	PERTSONAIA EZKUTUA
9	ERRELEBO LASTERKETA
10	HAZIAK LANDATUZ, BASOA SORTU
11	FAMILIA EREDU DESBERDINAK
12	SOKASALTOAN
13	BAPATEKO GAIXOTASUNAK
14	EGIPTOKO HIZKUNTZA
15	NAFARROA OINEZ 2021 ABESTIA
16	NAFARROA OINEZ 2021 BIDEOA. HERRIAK MAPAN KOKATU
17	GURE INGURUKO HERRI ETA LEKU EDERRAK
18	KOREOGRAFIA TAILERRA
19	OINEZean PARTE HARTZEKO GONBIDAPEN IRAGARKIAK SORTU

IRUDIA ETA LELOA

1.JARDUERA	<p>“HEGAN OINEZ” IRUDIA LELOAREN AZALPENA</p> 
HELBURUAK	<p>Lizarra Ikastolak antolatzen duen Nafarroa Oinez 2021 edizioaren Irudia eta Leloa ezagutu: “Hegan Oinez”</p>
DESKRIBAPENA	<p>Testua irakurri eta leloaz jabetu. Irudia gelan ikusgai izan. Aurkezpen bideotxo ikusi.</p>
EDUKIAK	<p>“Hegan Oinez” leloaren esanahia. OINEZ leloa; Ongi etorri, Ikastola, Nafarroa, Euskara, Zu ni Elkarrekin.</p>
MATERIALA	<p>Leloaren azalpena, testua. Logoaren IRUDIA. HeganOinez LOGOA</p> <p>Irudiaren aurkezpen bideotxo. HeganOinez LOGO AURKEZPEN BIDEOA</p>

2.JARDUERA	<p>HEGAN OINEZ LELOA eta ERAKUSKETA</p>
HELBURUAK	<p>Leloa aztertuz, esanahiari buruzko hausnarketa bultzatu eta leloaren irudikapena egin. Arte erakusketa antolatu.</p>
DESKRIBAPENA	<p>Oztopo guztien gainerik...HEGAN OINEZ!</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Zer da zuretzat Hegan Oinez?</i> - <i>Irudikatuko al zenuke “hegan oinez”?</i>
EDUKIAK	<p>ELKARTASUNA. IKASTOLA, KOMUNITATEA. EZINA EKINEZ EGINA. SORMENA. ERAKUSKETA.</p>
MATERIALA	<p>Hegan Oinez irudikatzeko papera/nahi beste materiala.</p>

IPUINA

3.JARDUERA	IPUINAREN ALDEZ AURREKOAK: PERTSONAIK EZAGUTU.
HELBURUAK	Jarduera honen helburu nagusia pertsonaiak ezagutzea izanenda.
DESKRIBAPENA	Pertsonaien aurkezpena egingo dugu eta bakoitzari buruz zerbait gehiago ezagutuko dugu. Nolakoa da pertsonaia bakoitza? Zenbat dira? (HH)
EDUKIAK	ANIZTASUNA. NONGOAK GARA? GURE NORTASUNA. Nortzuk dira Ipuinaren protagonistak? Zenbat dira? (HH) Kopurua, grafia. PERTSONAIK = IKASTOLAKO IKASLEAK.
MATERIALA	Pertsonaien informazioa. PertsonaiakEzagutzen Pertsonaien irudiak. PertsonaiakKoloreetanZenekin PertsonaienTxartelak

4.JARDUERA	IPUIN KONTAKETA
HELBURUAK	<p>Ipuina kontatzea eta gozatzea izanen da.</p> <p>Norberak istorioa bereganatu eta ondoren;</p> <ul style="list-style-type: none"> -Ipuina kontatu. -Pasarteak antzeztu. -Ipuina irakurri.
DESKRIBAPENA	<p>Ipuina pasarte desberdinetan antolatuta dago.</p> <p>Egun bakoitzean pasarte bat kontatzeko pentsatuta dago.</p> <p>Pasarte bakoitzak bere irudia izanen du.</p> <p>Egun bakoitzean pasarte bakoitzari dagokion irudia erakutsiko dugu.</p>
EDUKIAK	<ul style="list-style-type: none"> -IKASTOLA= MUXU -OINEZ FESTA = ELKARTASUN FESTA -Ezina Ekinez egina. -Auzolana. -Ikastolaren helburu nagusia, EUSKALDUNTZEA. -Oinez Basoa (haziak landatuz, basoa sortu). -Belaunaldi ezberdinen arteko harremana. -Aniztasuna. Kultura ezberdinak elkarrekin. -Familia eredu desberdinak. -Inklusio fisikoa. -Gaixotasun larriak. -Enpatia. -Laguntasuna. -Elkarlana, ohitura osasuntsuak. -Talde jolasak.
MATERIALA	<p>IPUINA</p> <p><u>HeganOinez Ipuina</u></p> <p>PASARTEEN IRUDIAK</p>

5.JARDUERA	IPUINAREN ONDORENGOAK... ELKARRIZKETA eta SORMENA
HELBURUAK	Ipuina kontatu ondoren, elkarrizketa abiatuko dugu, gure ikasleen adinari egokituta. Ipuina aitzakia hartuta, galderak edo hausnarketak bultzatzea izanen da helburua.
DESKRIBAPENA	<p>3.1. ELKARRIZKETAK, HAUSNARKETAK. Gure protagonistak Ikastolako ikasleak dira. Gertaera desberdinak bizi dituzte istorioan zehar. Ikasleak bizipen errealekin identifikatu daitezke eta emozioak askatzen lagundu. Horretarako, galderak edo hausnarketak bultzatuko ditugu; (adibidez...)</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Gustatu al zaizue?</i> - <i>Zein pertsonaia gustatu zaizu gehien/gutxien? Zergatik?</i> - <i>Ipuinean gertatzen dena fantastikoa edo erreala da?</i> - <i>Nola sentitu zara ipuinean zehar?</i> - <i>Ipuinean pertsonaia baten tokian jarri beharko bazenu, nor izango zinateke? Zergatik?</i> - <i>Gertatu al zaizu ipuin honetan bizi izan den gertaeraren bat? Gurekin partekatu nahi al duzu?</i> - <i>Lagun taldeak Muxu laguntzen dute berriz aske sentitu dadin. Zer iruditu zaizu amaiera?</i> <p>...</p> <p>IPUINAREN AMAIERA: OZTOPO GUZTIEN GAINETIK, HEGAN OINEZI!</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>“Hegan Oinez” egitea, zer da zuretzat?</i> - <i>Posible al da hegan oinez egitea?</i> <p>3.2. ABENTURA BERRIA ASMATU, SORMENA.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Lagun taldearentzat abentura bat asmatuko zenuke?</i> <p>...</p> <p>Abentura berriak asmatzeko aukera desberdinak; -Abentura berria banaka asmatu eta besteei ahoz adierazi. -Abentura berria binaka/talde txikitan asmatu eta besteei ahoz adierazi/ antzeztu. -Abentura berria idatzi. -Abentura berria komiki bidez irudikatu.</p> <p>Abentura berriak jasoko ditugu eta gero gelako bilduma sortzea da proposamena (paperean nahiz era digitalean).</p>

	<p>Betiere adinari eta konpetentzia mailari egokituta egonen delarik.</p> <p>Era desberdinetan egin daiteke...</p> <p>-Irakasleak idatziz jasoz ikasleek asmatu dutena.</p> <p>-Antzezpenak bideo/audio laburretan jasoz.</p> <p>Gelan denon artean osatutako bilduma eskura izango dugu aukera dutenean hartzeko eta gogora ekartzeko asmatutako abentura berrien liburuxka.</p>
EDUKIAK	<p>IKASLEAK, ANIZTASUNA.</p> <p>BIZIPEN ERREALAK/ FANTASTIKOAK.</p> <p>BIZITZAKO GERTAERAK.</p> <p>ENPATIA.</p> <p>EMOZIOAK.</p> <p>SORMENA.</p> <p>AHOZKO KONPETENTZIA.</p> <p>IDATZIZKO KONPETENTZIA.</p> <p>IRUDIKATZEKO KONPETENTZIA.</p>
EKOIZPENA	<p>Sortzen diren ahozko gogoetak edo elkarrizketak.</p> <p>Abentura berriekin gelako bilduma edo liburuxka.</p>
MATERIALA	<p>IPUINA, gogoetak.</p> <p>Abentura berriak bideoz edo audioz jasotzeko grabagailua.</p> <p>Abentura berriak jasotzeko/asmatzeko orri zuriak.</p> <p>Abentura berriak komikian jasotzeko orri zuriak/komiki eredu zuria.</p>

6.JARDUERA	PERTSONAIK AZTERTU ETA KOLOREZTATU
HELBURUAK	Ipuina barneratu ondoren, protagonistak gureak egin. Matematika hiztegia aberastu. Matematika elkarrizketa sortu. Protagonisten izenak aitzakia hartuta, irakurketa-idazketa prozesua mugitu, motibatu.
DESKRIBAPENA	<p>Protagonisten formari buruzko elkarrizketa abiatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Nolakoak dira? Denak berdinak al dira?</i> - <i>Zer forma dute txoritxoek? eta arrainak?</i> - <i>Irudi geometriko hauek ezagutzen al dituzu?</i> - <i>Nola deitzen dira?</i> - <i>Zenbat erpin ditu bakoitzak?</i> - ... <p>Pertsonaia bakoitzaren izena idatzi. TXIO, PIO, SUSU, MUXU, UR</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Silaba kopurua eta soinuak markatu.</i> - <i>Hasierak eta amaierak landu.</i> - <i>Letren soinuei buruz aritu.</i> - <i>Talde handian idatzi eta soinuak aztertu.</i> - <i>Banakako ezagutza eta ekoizpena motibatu.</i> - ...
EDUKIAK	<p>HIZTEGI MATEMATIKOA. Irudi geometrikoak: Zirkulua, karratua, triangelua, pentagonoa.</p> <p>IDAZKETA-IRAKURKETA PROZESUA.</p>
MATERIALA	<p>Pertsonaien irudiak koloreztatzeko</p> <p>PertsonaiakBanakaKoloreztatzeko</p>

7.JARDUERA	PERTSONAIA BERRIAK ASMATU ETA AURKEZTU
HELBURUAK	Pertsonaien irudien azterketa egin ondoren, sormen saioa eta erakusketa burutu.
DESKRIBAPENA	<p>Gure pertsonaietan oinarritutako irudi geometrikoak eskaini eta pertsonaia berriak sortu.</p> <p>Jardueraren garapena: banaka/binaka/talde txikian.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pieza desberdinekin, pertsonaia berria sortu. Horretarako, piezak koloreztatu, moztu, antolatu eta itsatsi. - Pertsonaia berriari IZENA jarri. - Pertsonaia berriaren deskribapena egin. Ahoz edo idatziz. - Gelako pertsonaia berrien erakusketa antolatu. <i>Sortutako pertsonaia guztiak horma-irudi batean bildu. Pasabidean erakusgai jarri. Argazkiak atera eta bilduma digitala sortu maila desberdinetako pertsonaia berriein.</i> <p>Ekoizpen desberdinen aurkezpena egin eta erakusgai jarri.</p>
EDUKIAK	<p>ADIMEN LATERALA. SORMENA.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pertsonaia berria asmatu. - Izena asmatu. - Bere deskribapena egin (ahoz edo idatzizko ekoizpena). - Erakusketarako prestatu; lanaren aurkezpena, txukuntasuna. <p>AUKERA ANITZA.</p> <p>Abiapuntu berdinetik, proposamen anitzak eta desberdinak. Denak baliagarriak. Besteen proposamenekiko errespetua.</p>
MATERIALA	<p>Pertsonaiak sortzeko pieza ereduak.</p> <p>INPRIMATZEKO PIEZAK</p> <p>PertsonaienZatiak-InprimatzekoPiezak</p>

8.JARDUERA	ERRELEBO LASTERKETA
HELBURUAK	Taldeka jolastea, jolas kooperatiboa bultzatzea.
DESKRIBAPENA	<p>Taldeka pertsonaiak banatu eta errelebo lasterketa jolastokian antolatu.</p> <p>Partaide desberdinak behar dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> -Epailea, arauen arduraduna. -Idazkaria datuen bilketa egiteko. -Denboraren arduraduna. - Gainontzeko partaideak, lasterketako parte hartzaileak** izango dira. <p><i>**Norbaitek ezintasun fisikoren bat izango balu, denok parte hartzeko, taldeak egoera eta aukerak aztertu beharko lituzke. Adostutako erabakiak hartu eta arauak egokitu.</i></p> <p>Txartelak edo izenak prestatu daitezke haur bakoitzak bere pertsonaia soinean eraman dezan.</p> <p>Aukera desberdinak* daude jarduera antolatzeko: <i>*Konpetentziaren arabera, epailea, idazkaria eta denboraren kontrola egingo duten 3 antolatzaileak txertatuko dira.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Nor izan da talde bakoitzaren garailea, lehenengoa?</i> - <i>Nor izan da bigarrena, hirugarrena, laugarrena?</i> - <i>Nor izan da azkena?</i> - <i>Nor izan da azkarrena?</i> - <i>Zenbat minutu eta segundu behar izan ditu?</i> - <i>Zenbat segundu dira guztira?</i> - <i>Nor izan da zure taldean motelena?</i> - <i>Zenbateko aldea atera dio lehenengoak, azkenari?</i> - <i>Ikastolako datuak biltzen; talde guztiak kontuan hartuta zenbat aldiz irabazi du bakoitzak?</i> - ... <p>Epaileak errelebo lasterketaren arauak gogoratu eta lasterketa burutzen den bitartean, arauak betetzen direla ziurtatuko du. Denboraren arduradunak, denbora neurtzeko kronometroa erabiliko du. Idazkariak, datuak jasoko ditu.</p>
EDUKIAK	HIZTEGI MATEMATIKOA. Zenbaki ordinalak eta kardinalak. DENBORAREN NEURKETA. Minutuak eta segunduak.

	<p>DENBORAREKIN ERAGIKETAK. Batuketak eta kenketak. ALDERAKETAK. Gehiago/gutxiago. BERDINTZAK. Minutu bat = 60 segundu. DATU-BILKETAK. Taulak eta grafikoak. Maiztasuna. ERRESPETUA. EMOZIOAK. ARIKETA FISIKOA. OHITURA OSASUNTSUAK. TXANDAKA KORRIKA EGITEA: TALDE JOLASA, denon beharra.</p>
<p>MATERIALA</p>	<p>Pertsonaien irudi txartelak edo izenak. <u>IRUDI TXARTELAK</u> Kronometroa. Datuak jolastokian biltzeko koadernoak edo parrila.</p>

9.JARDUERA	HAZIAK LANDATUZ, BASOA SORTU
HELBURUAK	Oinez Basoa ekimena ulertu eta landu.
DESKRIBAPENA	<p>Ipuina aitzakia hartuta, Ezkurrak landatu.</p> <p>Ezkurrak ekartzeko eskatu.</p> <p>Lorontzietan landatu eta Ikastolako jolastokian zaindu.</p> <p>Ezkurrak prozesu luzea eskatzen duenez, ikasturtean zehar zaindu eta behatu beharko da.</p> <p>Ernetze prozesua irudi edo marrazki bidez dokumentatu.</p> <p>Landarea lortu ondoren, lurrean/basoan landatu eta zaindu.</p>
EDUKIAK	<p>OINEZ BASOA.</p> <p>HAZITIK LANDARERA PROZESUA.</p> <p>LANDAKETA ETA LANDAREEN ZAINZA.</p> <p>INGURUMENAREN ZAINZA.</p>
MATERIALA	<p>Ezkurrak.</p> <p>Lorontziak.</p> <p>Lurra.</p> <p>Ureztailua.</p> <p>Prozesua jasotzeko koadernoak: argazkiak egin edo marraztu.</p>

10.JARDUERA	FAMILIA DESBERDINAK
HELBURUAK	Familia tipologia anitza landu.
DESKRIBAPENA	<p>Ipuina aitzakia hartuta, Piok bi ama ditu. Elkarrizketa abiatu ... *Ikasleen konpetentzia mailari egokitu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Familia guztiak berdinak al gara?</i> - <i>Gure artean familia eredu bakarra dago?</i> - <i>Zer iruditzen zaizue Piok aipatzen duena, beti azaldu beharra duela bi ama dituela?</i> - ... <p>Berdintasuna bultzatzeko jardueraren bat praktikan jarri.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Rol playing antzezpenak, egoera gatazkatsuak antzeztu, besteen tokian jarri.</i> - <i>Konpromiso sozialak hartu.</i>
EDUKIAK	<p>FAMILIA TIPOLOGIA ANITZA. Ama-ama, ama-aita, aita-aita, ama bakarra edo aita bakarra, ama edo aitarik gabekoak,...</p> <p>ESTEREOTIPOAK. BERDINTASUN ESKUBIDEA. KONPROMEZU SOZIALA.</p>
MATERIALA	<p>IPUINA.</p> <p>FAMILIA EREDU DESBERDINEN KARTA JOLASA (HHn).</p>

11.JARDUERA	SOKASALTOAN
HELBURUAK	Talde jolasean aritu, gorputz mugimenduaren bitartez, koordinazioaz eta erritmoaz jabetu.
DESKRIBAPENA	<p>Ipuina aitzakia hartuta, sokasaltoan aritu.</p> <p>Konpetentziaren arabera jarduera desberdinak;</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Abestia ikasi eta sokasaltoan aritu.</i> <i>“Txori, txori, arrain eta txori,</i> <i>elkarrekin hegan eta salto egin ...”</i> - <i>Erronka; Sokasaltoan aritzeko abestiak asmatu.</i> <i>Saltoaren denbora eta abestiaren erritmoa kontuan hartu.</i> <i>Gaia: Nafarroa Oinez.</i> <p>Talde txikitan banatu eta talde bakoitzak bere abestia asmatu.</p>
EDUKIAK	SALTOAK, KOORDINAZIOA. SORMENA; ABESTIAK ASMATU. ABESTIEN ERRITMOA.
MATERIALA	Soka.

12.JARDUERA	BAT-BATEKO GAIXOTASUNAK
HELBURUAK	Bat-bateko gaixotasun larrien errealitateaz jabetzea, horri buruz hitz egitea, besteen tokian jartzea. Indar mezuak sortzea eta bidaltzea.
DESKRIBAPENA	<p>Ipuina aitzakia hartuta...</p> <p>Gure artean bizitza iraultzen duten bat-bateko gaixotasun larriak pairatzen dituzten haurrak/pertsonak daude.</p> <p>Gaixotasun larriak asko dira. Ipuinean, minbizia azaltzen da.</p> <p>Susuk hiyaba janzten du Muxurekin elkartasuna adierazteko.</p> <p>Gaixorik dagoen bitartean, Txioek euskara irakasten dio.</p> <p>Elkarrizketa abiatu ...</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Ezagutzen al duzu bat-bateko gaixotasun larriren bat?</i> - <i>Gure artean badago gaixotasun larria duen lagun bat?</i> - <i>Zer iruditzen zaizu Susuk eta Txioek egiten dituzten ekintzak Muxurekiko elkartasuna adierazteko?</i> - <i>Lagun taldeak ongi etorri festa antolatzen dio.</i> <p>Gaixotasun larria pairatzen ari den pertsona bati bidaltzeko mezuak pentsatu, idatzi edo grabatu.</p>
EDUKIAK	GAIXOTASUN LARRIAK. HERIOTZA. ENPATIA. ELKARTASUNA. EKINTZAILEAK IZATEKO AUKERAK. KOMUNITATEA, IKASTOLA. INDAR MEZUAK EKOIZTU.
MATERIALA	Gaiarekin lotutako bideo interesgarriak gelan lantzeko.

13.JARDUERA	EGIPTOKO ALFABETOA
HELBURUAK	Aniztasuna landu. Beste hizkuntzekiko hurbilpena.
DESKRIBAPENA	<p>Ipuina aitzaki hartuta ...</p> <p>Susuren hizkuntza ezagutuko dugu, Egiptoko hizkuntza.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Guk zein hizkuntza dakigu?</i> - <i>Hizkuntza gehiago al daude munduan?</i> - <i>Ezagutzen al duzue baten bat?</i> - <i>Susu Egipton jaio da.</i> <p>SUSU: maitea esateko modu bat da Egiptoko arabieran.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Zer dakigu Egiptori buruz? Non dago Egipto? Zein da bere hizkuntza? Ezagutzen al duzue?</i> - <i>Egiptoko alfabetoa aztertuko dugu.</i> <p>Egiptoko hizkuntza eta alfabetoa ezagutu ondoren, bakoitzaren izena Egiptoko alfabetoarekin osatzea proposatuko dugu.</p> <p>*Konpetentziaren arabera, umeei beraiek irudiak irudikatuko dituzte. Bestela, hizki bakoitzaren irudia fotokopiatuta emango diegu beraiek itsas dezaten.</p>
EDUKIAK	ANIZTASUNA. BESTE HIZKUNTZAK.
MATERIALA	EGIPTOKO ALFABETOA. Eranskina.

ABESTIA ETA BIDEOKLIPA

14.JARDUERA	NAFARROA OINEZ 2021 ABESTIA IKASI
HELBURUAK	Abestia ikasi.
DESKRIBAPENA	Abestia entzun, letra irakurri eta aztertu. Abestia ikasi. Abestia eman alde aurretik prestatutako hutsuneekin eta ikasleek asmatu zer falta den.
EDUKIAK	EUSKARA
MATERIALA	ABESTIAREN LETRA HeganOinezKANTA ABESTIAREN AUDIOA EDO BIDEOA HeganOinez KANTA

15.JARDUERA	NAFARROA OINEZ 2021 BIDEOA IKUSI
HELBURUAK	Bideoa ikusi eta dantzatzen gozatu.
DESKRIBAPENA	Bideoa ikusi eta dantzatu. Norberak nahi duen bezala dantzatu.
EDUKIAK	ABESTIA DANTZA
MATERIALA	BIDEOKLIPA NafarroaOinezBIDEOKLIPA

16.JARDUERA	GURE INGURUKO HERRIAK ETA TOKIAK
HELBURUAK	Bideoan agertzen diren herriak eta lekuak identifikatu, ezagutu eta mapan kokatu.
DESKRIBAPENA	<p>Bideoklipan agertzen diren herri edo lekuak mapan kokatuko ditugu.</p> <p>Bideoa ikusi ahala ikasleek identifikatzen dituzten lekuak zerrendatu.</p> <p><i>*Ikasleen konpetentzia mailari egokitu.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Arellano - Urbasa - Irantzu - Lerin - Allotz - Monjardin/Deio - Vitoria - Zubielki - Aberin - Lokiz - Baigorri - Lizarra (Kartzelako zubia, Gazteluko gurutzea, San Miguel Eliza, San Martin enparantza, Lizarra ikastola <p><i>Inoiz egon zarete hemen agertzen den tokiren batean? Ezagutzen al dituzue Lizarraldeko toki desberdinak? Besteren bat ezagutzen al duzue?</i></p>
EDUKIAK	INGURUKO HERRIEN EZAGUTZA. HIZTEGIA. ZERRENDA. GEOGRAFIA: MAPAN KOKAPENA.
MATERIALA	Bideoklipa. Herri eta lekuen zerrenda. Mapak.


NAFARROA OINEZ 2021 IRAGARPENA


17.JARDUERA	KOREOGRAFIAK SORTZEKO TAILERRA
HELBURUAK	Koreografia motzak sortu eta besteei eskaini. Nafarroa Oinez iragarri.
DESKRIBAPENA	Binaka/talde txikitan/talde handian koreografia motzak asmatu. Dantzak prestatu, entsegua egin. Besteei eskaini. Koreografiak grabatu.
EDUKIAK	GORPUTZ HEZKUNTZA. DANTZA TALDE LANA, KOREOGRAFIAK NAFARROA OINEZ IRAGARPENA
MATERIALA	Dantza egiteko espazio zabala. Grabatzeko gailua.


18.JARDUERA	NAFARROA OINEZEn PARTE HARTZEKO GONBIDAPEN IRAGARKIAK SORTU
HELBURUAK	Gure ikasleak protagonistak izanik, Nafarroa Oinezean parte hartzeko iragarkiak sortzea eta zabaltzea.
DESKRIBAPENA	Nafarroa Oinez iragartzeko eta bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzeko iragarkiak sortuko ditugu. Kasu honetan, ikus-entzunezkoak. Taldeka edo gelaka iragarkiaren gidioia adostu, egokitasuna aztertu eta grabatuko ditugu. Sare sozialetan zabaltzea izango da asmoa.
EDUKIAK	KOMUNIKAZIOA: IRAGARKIAK PRESTAKETA, GIDOIA ELKARLANA
MATERIALA	Grabatzeko gailua.


ERANSKINAK


*Egiptoko alfabeto eredu.

A = 

B = 


C = 


D = 

E = 


F = 


G = 


H = 


I = 

J = 


K = 

L = 


M = 

N = 


O = 


P = 


Q = 

R = 


S = 

T = 

U = 


V = 

W = 

X = 

Y = 

Z = 

A = 

B = 